

# K A R M E N A K

BIDASOA.HITZA.EUS  
OARSOALDEA.HITZA.EUS

## TRINTXERPE 2023

**A**tzo hasi ziren Trintxerpeko Karmengo Amaren Festak. Zapi urdinak jarri zituzten trintxerpeta-  
rrek Pasaiaiko udako laugarren jaiak izan-  
go direnen hasiera horretan. Txupinerak  
barrutiko gantxillerak izan ziren, ohorez  
eragin zioten jai aroari, eta pozik. Izan  
ere, euren ahalduntzerako espazioan isi-  
lean lanean egotetik, jendartearen zu-  
rrunbilora eraman zuten jostunek euren  
egitekoarekin Trintxerpe hobea egiten  
dutela. Emakumeen ikuspegitik ari dira  
jaietaz gozatzen jada.

Astelehenera arte luzatuko dira karmenak. Trintxerpeko Jai Batzordeak maitasunez eta arretaz prestatu ditu egitarauaren barruan dauden ekitaldi guztiak. Haur, gazte, heldu edo adineko, den-denek izango dute unerren bat festa giroan murgiltzeko. Egun handia igandekoa da, Karmengo Amaren Eguna. Baina beste guztietan, barrutiko eragileen lanari esker, badira elkar egoteko une asko. Une horiek, den-denak, jarrera sexista, arrazista eta LGTBifobikorik gabekoak izan daitezela eskatu du jai batzordeak. ✕



ERASO SEXISTA,  
HOMOFOBO,  
XENOFOBO  
ETA TRANSFORIK  
GABEKO JAIK  
NAHI DITUGU!



# TRINTXERPEKO KARMENAK

OLAIA GERENDIAIN

**A**urtengo Karmengo Amaren Jaien txupinerak Mertxe Blanco, Magdalena Betancourt, Mari Fernandez eta Ruth Mariño trintxerpetarrak izan dira. Lehen hiruak izan ziren jaien irekierarako diskurtsoa sortu eta irakurri zutenak, eta prozesu horrek sorturiko urduritasun eta zirrarez mintzatu zitzaizkien HITZA-ri [txupinazioa baino lehen jasotako adierazpenak dira orriotakoak]. Udalak sustaturiko, Adinkide GKEko Blanca Caballerok koordinaturiko eta Oihana Merino *Lalocadelacasa* sortzaileak gidaturiko kakoratz taldeko kideak dira emakume horiek.

Karmenak inauguratzeko gonbidapena egin zietenean, lotsa eta segurtasun ezak gorpuztu ziren haiengan. «Ez zait inoiz gustatu jendaurrean jartzea. Beldur eszeniko izugarria izan dut betidanik», mintzatu da Betancourt. Kubatarra da hura jatorriz, eta hamarkada baino gutxiago darama Euskal Herrian. Trintxerpen, berriz, 2020.aren bukaerara hartu zuen lur. Kakoratz taldeak sendiaz gaindiko harremanak sortzeko balio izan zion hari: «Hemen bederatzire urte badaramatzat ere, aurretik sekula ez nuen komunitatean parte hartu, ez nuen harremanik nire senideez gain, eta



Mertxe Blanco, Mari Fernandez eta Magdalena Betancourt. HITZA

## Komunitatearen ehuleak

**Trintxerpeko kakoratz taldeko emakumeak izan dira aurtengo txupinerak. Komunitatean parte hartzeko beharraz eta «entzunak sentitzeaz» mintzatu dira, besteak beste, inaugurazio diskurtsoan.**

hemen ez dut ia familiarik, nire seme-alabak eta lehengusu bakarra. Ez dut ia inor ezagutzen». Horregatik, beste inork baino erronka handiagotzat du hark txupinera izateko ardura beregain hartu izana. «Oso urduri nago», aitortu du.

Blanco, trintxerpetarra izanagatik ere,

ez dago lasaiago: «Ez nuen sekula nire burua txupinera gisa irudikatu. Ez nuen uste inoiz halako aukera bat izango nuenik, ez baitut ezta danborradan jotzen ere. Baina, tira, orain gai honetan murgilduta nagoenez, gogotsu nago, pozik».

Fernandezek «oso beldurtizat» du bere burua, eta beraz, Caballerok suziria





botatzeko proposamena luzatu zionean, buruan bueltaka izan zuen luze erantzuna. «Kostata», baina baiezkoa eman zuen baita hark ere. Gutxi parte hartu izan du aurretik Fernandezek karmenetan, baina esne-mamitan hasiko ditu aurten: «Aurten, bai! Txupinazoaren ondoren, gauean, karaokea dago. Eta, ene! Zenbat abestuko dudan...».

### KOMUNITATEA EHUNTZEN

Sekula baino protagonismo handiagoa izango dute aurten adineko emakumeek Trintxerpeko jaietan. Hori da, hain zuzen, kakorraz taldearen oinarrietan dagoen xede nagusietako bat, Adinkideko langileak azaldu duenez: «Helburua, gure arteko harremanak saretzeaz gain, kanpora atera eta komunitatearekin partekatzea ere bada».

Merinori esker kakorraz-lanetan geroz eta trebeagoak dira guztiak. Baina sareak orratzik gabe ere egiten dituzte gantxillerek. «Kakorraz tailerlean parte hartzen dut, baina askotan ez dut asmatzen puntuak zenbatzen, etxean egin izan dudanean edozein modutara egin izan baitut. Gehien betetzen nauena taldearen bihozberatasuna da», mintzatu da Fernandez, «jende zoragarria da; etxera natorrenean pentsatzen jarraitzen dut: 'zein jatorra den hau, zein jatorra beste hori...'. Horrek edozer gauza esateko ausardia ematen dizu, ez baituzu beldurrik hanka sartzeko. Jendeak atentzioz entzuten zaitu».

Izan ere, beste edozein herritarrek bezainbeste merezi dute entzunak izatea. Txupinazoko diskurtsoan esan zuten: «Aldarrikatuko dugu adineko jendea ez garela ikusezinak, eta gauza piloa egin ditzakegula, eta egiten ditugula. Gorai-patu nahi ditugu, aldi berean, elkartasuna, feminismoa, bizilagunen arteko harremanak...», irmo hitz egin du Blancok.

Kakorratza emakume horien erreminta artistikoa da, taldeak eustazpi dituen kalitatezko harremanak ehuntzen jarraitzeko. Desio ez den bakardadeari aurre egiten jarraitzeko. Horrela sortzen baitira elkar-zaintzeko gai diren komunitate sendoak, eta horrela egiten baita herria. Eta herritik, jakina, herriko jaiak. Gora trintxerpetarrak eta gora karmenak! ✕



**EGITARAU  
OSOA  
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda



### HERRI BAZKARIA

**Bihar, 14:30ean, Gudari plazan.** Korkoiburuek antolatutako herri bazkarian mahaia eta aulkiak izango dira. Jatekoa norberak etxetik eraman beharko du. Edaria, txosnan.



### DANBORRADAK

**Lau danborrada.** Atzo izan zen gizonezkoena. Gaur, 20:30ean, familia danborrada, Serafin Esnaolatik. Bihar, 12:00etan, haurren danborrada, Gudari plazatik, eta 18:00etan Azkueneko danborrada, Ulia etorbidetik. Igandean, 16:00etan, Itsas danborrada elizaren behealdetik eta 19:00etan emakumeena, Serafin Esnaolatik.



### HERRI LASTERKETA

**Igandean, 09:30ean, Gernika plazatik.** 5 kilometroko lasterketa egingo dute Trintxerpen, herritar talde baten ekimenez. Aurten bigarren urtea izango du lasterketak, iazko arrakastak bultzatuta antolatu dute.